



**Arartekoaren gomendioak eta  
iradokizunak diru-sarrerak bermatzeko  
errentaren eta etxebizitzarako prestazio  
osagarriaren inguruan,  
2019. urtean zehar**

**ararteko**

Herriaren Defendatzaila  
*Defensoría del Pueblo*

# AURKIBIDEA

## Alderdietako batek eskatuta irekitako kexa-espedienteak

|   |   |
|---|---|
| 1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea .....                           | 5 |
| 1.1. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa   |   |
| 1.2. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 30ekoa  |   |
| 1.3. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa  |   |
| 1.4. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa   |   |
| 1.5. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 25ekoa  |   |
| 1.6. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 20koa   |   |
| 2. Etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea .....  | 7 |
| 2.1. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa   |   |
| 2.2. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa  |   |
| 2.3. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa  |   |
| 3. Etxebizitzarako prestazio osagarria etetea .....   | 8 |
| 3.1. Arartekoaren Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa   |   |
| 3.2. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa  |   |
| 4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak etetea..... | 9 |
| 4.1. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 15ekoa   |   |
| 4.2. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa  |   |
| 4.3. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa   |   |
| 4.4. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa  |   |

5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak iraungitzea ..... 11
- 5.1. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa*
  - 5.2. *Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10ekoa*
  - 5.3. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa*
  - 5.4. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa*
  - 5.5. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa*
  - 5.6. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 1ekoa*
  - 5.7. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 26koa*
  - 5.8. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa*
  - 5.9. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa*
  - 5.10. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 2koa*
  - 5.11. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 14koa*
6. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berritzeko eskaera ukatzea..... 15
- Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 12koa*
7. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioak erreklamatzeko..... 15
- 7.1. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa*
  - 7.2. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa*
  - 7.3. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 10ekoa*
  - 7.4. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa*
  - 7.5. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa*
  - 7.6. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 6koa*
  - 7.7. *Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25ekoa*

## Ofiziozko jarduerak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzeko espedientean, langile autonomoei gutxieneko etekin faltsua egozte. .... 18  
*Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa*
2. Genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzea ..... 18  
*Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa*
3. Lanbideren 1/2015 Zirkularra -bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoa– aldatzeko proposamena ..... 18  
*Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa*
4. Ondare-mugari buruzko aurreikuspenak aplikatu zaizkie biziarteko gozamenarekin kargatutako ondasun higiezin baten jabetza soila –osoa edo partziala– jarauntsi duten prestazio eskatzaileei edo titularrei. .... 19  
*Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 5koa*
5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateari utzi dioten pertsoneri egiten zaizkien jakinarazpenak, prestazioak itzularazteko prozedurako izapideen berri emateko ..... 19  
*Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10koa*

## ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIAREN INGURUAN, 2019. URTEAN ZEHAR

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa dela eta, Arartekoak 2019. urtean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zuzendu dizkion gomendio eta iradokizunak -Arartekoaren webgunean argitaratutakoak- jasotzen ditu dokumentu honek. Guztira, 39 gomendio, iradokizun eta bestelako ebazpen dira. Horietatik guztietatik, 23 ez dira onartu, 2 onartu dira, 11 erantzunaren zain daude<sup>1</sup>, eta 3 behin betiko ebazpenak dira (horietan onartu egin dira Arartekoaren gogoetak).

### Alderdietako batek eskatuta irekitako kexa-espeditentak

#### 1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea

1.1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zituen, kexagilea muturreko premiagatiko harreraren egoeran zegoela iritzita, kexagilea azpierrentamendu-kontratu bat eta adostutako errenta ordaintzea egiaztatu zuen arren. Balorazioaren oinarri bakarra kexagileak gelaren alokairua ordaintzera bideratzen dituen bizitzeko baliabideak egiaztatu ez izana zen. Ararteko hau ez dator bat Lanbidek egindako interpretazioarekin, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea helburu duen eskubide subjektiboa araudiak berariaz aurrez ikusitako kasuetan bakarrik uka daitekeelako. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4852\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4852_1.pdf)

---

<sup>1</sup> Ebazpen horiek erantzunaren zain daude agiri hau argitaratzeko datan.

**1.2.** Lanbidek adingabe bat ardurapean duen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati ukatu zion diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, semeari dagokion mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izanagatik, kexagileak 10 urtez baino gehiagoz pentsioa ez ordaintzea salatzen zuela jasota egon (25.836 eurotik gorako zorra dago) eta beste gurasoa auzi-ihesean dagoela deklaratu arren (urteak daramatza egonleku ezezagunean). Arartekoaren iritziz, kexagileak bete zuen eskubide ekonomiko guztiak baliatzeko betebeharra. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 30ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4784\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4784_1.pdf)

**1.3.** Lanbidek hiru adingabe ardurapean dituen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati ukatu zizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria, familiako kide guztiek genero-indarkeriaren biktimaren egiaztatzea izan arren. Ukapenaren arrazoiak lanaldi partzialeko bi lanetako bat utzi izana zen (horietako bat lan-kontratu mugagabekoa izanik); horren truke, lanaldi osoan lan bat hartu zuen kexagileak, familia eta lana hobeto uztartzeko, eta lan sustapena eta segurtasuna hobetzeko. Arartekoaren iritziz, bazegoen kausa justifikatu bat lanaldi partzialeko lanetako bat uzteko. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4783\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4783_1.pdf)

**1.4.** Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea ukatu zuen, etxebizitza batean hileko prezio ezberdinetako hiru azpierrementandu egoteagatik. Prezioak desberdinak ziren, gelen azalera ere ezberdina zelako. Arartekoaren iritziz, kexagileak bete zituen baldintza edo betebeharrak guztiak; izan ere, Lanbidek onartu egin zuen kexagilearen eskubidea hark aurkeztutako eskaera batean. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4786\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4786_1.pdf)

**1.5** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zituen, kexagileak azpierrementari gisa bizileku zuen etxebizitzako logelaren kopurua bertan bizi ziren bizikidetzaren unitatearen kopuruarekin bat ez zetorrelako, eta kexagileak instrukzio-fasean agiri jakin batzuk erantsi ez zituelako (geroago – errekurtsio-fasean – aurkeztu zituen agiri horiek). Arartekoaren iritziz, emandako informazioa nahikoa zen, eta, edonola ere, egokiena izango litzateke eskaera berriz zuzentzeko eskatzea edo errekurtsioa onestea, fase horretan modu frogagarrian egiaztatzea baitzen araudiak ezarritako baldintzak betetzen zirela. Ebazpenean berriz azaldu da beste erabaki batzuetan egindako azterketa; izan ere, egoitza judizialean –eta, beraz, administrazio-egoitzan– elementu berriak sartzea bidezkoztat jotzen duen jurisprudentzia berrienari jarraitzen zaio erabaki horietan. Arartekoaren

Ebazpena, 2019ko otsailaren 25ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4682\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4682_1.pdf)

**1.6.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zituen, ulertu baitzuen kexagileak ez zuela egiaztatzen erroldatua egon izana eta eskaera egin aurreko 3 urteetan edo aurre-aurreko 10 urteetan 5 urtez segidan EAEn benetan bizi izana. Aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen zuen bete egiten zela erroldatze-denbora, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzen zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen 16.1 b) artikuluan ezarritakoa. EAEn benetan bizi izatea egiaztatzeari dagokionez, erakunde honek [Arartekoaren diagnostiko-txostenean](#) egindako azterketa gogoratu zuen. Aipatu txostenak (2017) diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen zituen, 5.1.1. apartatuan "*Benetako bizilekua egiaztatzea*". Arartekoaren aburuz, benetako bizilekua egiaztatze moduari buruzko araudi-aurreikuspenik ez egoteak babesgabetasuna sor dezake. Gainera, azpimarratzen du udal-errolda udalerrri bateko biztanleak jasotzen diren administrazio-erregistroa dela; beraz, horko datuak udalerrian bizi izanaren eta ohiko bizilekua bertan edukitzearen froga dira. Horrez gain, administrazioak dokumentazio zehatzaren berri badu, hau da, araudian ezarritako baldintzak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen duen dokumentazioaren berri badu, kontuan hartu beharko litzateke. Hala, errekurtsio-fasean hori aurkezteak ez luke eragin beharko dokumentazioa ez onartzea, epez kanpokoa dela argudiatuz. Erakunde honek, egindako jurisprudenzia-azterketan, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2010eko martxoaren 17ko epaia aipatzen du: "[e]zin da onartu froga daitekeen akats bat duen hipotesi batean oinarritutako administrazio-egintza baten behin betiko baliotasuna". Horrez gain, antiformalismo-printzipioa aipatzen du, forma interes orokorren defentsaren eta bermearen menpekoea izatea eskatzen duena. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 20koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4720\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4720_1.pdf)

## **2. Etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egitea**

**2.1.** Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin izana adierazi zuen, nahitaezkoa ez zen dokumentazioaren errekerimendua oinarri hartuta. Ebazpenean, zenbaitetan azaldu zen arazo bati heldu zitzaion: Lanbidek emandako kontratuen inprimaki normalizatuak, eskatzaileentzat eta eskubideen titularrentzat lagungarriak izan badaitezke ere, ez lirateke erabakigarriak izan beharko sinatutako kontratuan jasotako betebeharren izaera juridikoa eta adostutako ordainen erregimena aztertze orduan, baldin eta hori aurkeztutako dokumentaziotik ondoriozta badaiteke. Arartekoaren iritziz, eredu horien erabilera borondatezkoa da. Gainera, bulegoan emandako informazioa desegokia izan

daiteke. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 19koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak onartu egin du ebazpena.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4680\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4680_1.pdf)

**2.2.** Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera bat atzera egin izana adierazi zuen, errentamendu-kontratu jakin bat aurkeztu ez zelako. Arartekoaren iritziz, ez dago Lanbideren eskakizuna –eskatutako dokumentazioa aurkezteko– justifika dezakeen oinarri juridikorik. Zehazki, kexa-espeditente honetan, Lanbidek, eskaera izapidetzen ari zela, zenbait unetan eskatu du “eguneratutako kontratua”, “indarrean dagoen kontratua” edo “kontratu berritua edo berria” aurkezteko. Hala ere, kexagileak Lanbidek eskatutako kontratu “berritua” edo “eguneratua” aurkeztu ez izanak ez du esan nahi egungo kontratua guztiz baliozkoa eta eraginkorra ez denik. Ildo horretan, Arartekoaren iritziz, Lanbidek egin dituen eskakizun administratiboek ez dute eraginik etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren balioaren eta eraginkortasunaren irismenean; hori dela eta, erakunde honek kezka adierazi nahi du, Lanbidek –legezko justifikaziorik edo errekerimendua behar bezala arrazoi dezakeen arazuko euskarririk gabe, are gehiago, kasu honetan bezala, hasieran sinatutako errentamendu-kontratua isilbidez luza daitekeenean– dokumentazioa behin eta berriz eskatzen duelako. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4711\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4711_1.pdf)

**2.3.** Lanbidek bertan gertatutako akats informatikoaren ondorioz dokumentazio-errekerimendua helbide okerrera bidali zelako adierazi zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera atzera egin izana, kexagilea prestazioen onuraduna izateko baldintzak bete arren. Ondorioz, bi prestazio horiek jasotzeko eskubidearen aitortpena 9 hilabete berandutu zen, baina 3 hilabeteri zegozkion atzerakinak bakarrik aitortu ziren. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4832\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4832_1.pdf)

### **3. Etxebizitzarako prestazio osagarria etetea**

**3.1.** Arartekoak aztertu zuen kexa-espeditente batean, zalantzan jarri zen errenta ordaintzeko agiriak epean aurkeztu izana eta ordaintzeko era (ez zen errentamendu-kontratuan ezarritakoa izan); hori guztia, kontratuak alde kontratatzaileen artean ondorioak izan arren eta aldatu ahal den arren (Kode Zibilaren 1091. eta 1203. artikulua). Arartekoaren ustez, Lanbidek hautematen badu ordaintzeko era ez dela errentamendu-kontratuan jasotakoa, egiaztapen batzuk egin ditzake legez-eredapenak bete diren ala ez ondorioztatzeko.

Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, prestazioak etetea eta erreklamatzeari, errenta ez delako kontratuan adierazi bezala ordaindu, iruzurrik edo irregulartasunik gertatu



den adierazten duen beste egiaztapenik egin gabe, ez du lege babesik. Arartekoaren Ebazpena, 2018ko apirilaren 17koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2\\_4504\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_4504_1.pdf)

**3.2.** Horrez gain, beste espediente batean, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria errentamendu-kontratua betetzeagatik eten izana aztertu zuen Arartekoak. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4887\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4887_1.pdf)

#### **4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak etetea**

**4.1.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria etetea erabaki zuen, ulertu baitzuen kexagileak ez zituela bete gizarteratze-hitzarmenaren bidez bere gain hartutako betebeharrak, ez baitzen joan ikastaro batera. Lanbidek interesdunari jakinarazi gabe inskribatu zuen kexagilea ikastaroan. Espedientea aztertzean, egiaztatu da Lanbidek posta-zerbitzuko gutun ziurtatu bidez –ikastaroa bukatu eta gero– jakinarazi ziola aipatu ikastaroaren deialdi ofiziala. Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eteteko edo iraungitzeko prozeduretan legeko berme egokiak ezartzeko beharra azpimarratu du, arrazoi hori oinarri hartuta. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 15ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4921\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4921_1.pdf)

**4.2.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria etetea erabaki zuen, titularra bizi zen helbidean beste pertsona bat erroldatuta zegoela jakinda, titularrak ez baitzuen horren berri eman. Eskatzaileak ez zekien beste pertsona bat erroldatuta zegoenik, eta izen-ematea azpierreneri batek, bere bizikidetzaren unitatearekin zerikusirik ez duenak, baimendu zuela egiaztatu zuen. Arartekoaren iritziz, Lanbidek lehenago burutu beharko lituzke udal erroldan izena eman duen pertsona hori nor den jakiteko beharrezko egiaztapenak, ezarritako betebeharra ez betetzearen erantzule nor den modu frogagarrian zehazteko. Arartekoak gogorarazi du administrazio-prozedura baten instrukzioan edo beste edozein izapidetan egiazko egoera ezagutzea izan behar duela garrantzitsua; hortaz, jarduketek helburu hori bete behar dute. Egitateak benetan jazo direla jakiteak bakarrik ekarriko du eskubidea etetea eta jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzea. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 21ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4714\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4714_1.pdf)

**4.3.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea erabaki zuen, mailegu bat sinatzeak bizikidetzaren unitatearen ekonomia-egoera larriagotu zuela ulertu zuelako. Arartekoaren iritziz, mailegu bat ohiko etxebizitza erosteko asmoz hartzeak ez dakar betebeharra ez betetzerik. Gainera, araudiak espresuki adierazten du ez dela ezohiko diru-sarreratzat jo behar. Espedientean gizarte-zerbitzuen txosten bat zegoen jasota; horren arabera, etxebizitza bat erostea ona zen bost adingabe ardurapean dituen familiarentzat. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4913\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4913_1.pdf)

**4.4.** Lanbidek prestazioa 12 hilabetez etetea erabaki zuen, hipoteka birfinantzatzeko mailegu bat eskatzeagatik. Hipoteka ordaintzeko zailtasunak zituela ikusita, finantza-entitatearekin batera, mailegua birfinantzatzeko beharra aztertu zuen kexagileak. Dirudienez, bizikidetzaren unitateko kide bati % 75eko desgaitasuna eta I. mendekotasun-gradua aitortu zioten, osasun-arazoaren ondorioz, eta horrek lana aurkitzeko oztopo bihurtu zen kexagilearentzat. Gainera, ardurapean bi adingabe zituenez, unitateko beste kideak haien zaindu behar izan zituen. Arartekoaren iritziz, ordaindu gabeko hipoteka-kuotak birfinantzatzeko erabakia ezin da betebeharra ez-betetzat jo, ez baita *“Eskuragarri zituen baliabideak modu arduratsuan administratu ez izana eta egoera ekonomikoaren okertzea edo bazterkeria egoera saihesteko xedearekin arduraz jardun ez izana”*. Birfinantzaketaren bidez, hain zuzen, hipoteka ordaintzeari aurre egin eta etxebizitzaren jabetzari eutsi nahi izan zen. Arartekoak beste kasu batzuetan adierazi duen moduan, ohiko etxebizitzaren titulartasuna izateak funtzio bikoitza du: ondasun materiala izateaz gain, familiaren bizitza normaltasunez egitea eta oinarrizko eskubideez gozatzea ahalbidetzen du, hala nola duintasunerako eskubideaz. Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea 12 hilabetez eten izanaren ondorioz ezinezkoa izan da hipoteka-kuota ordaintzea; ondorioz, familiak ez du etxebizitza jabetzeaz, eta hori ez dator bat Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 1. artikuluan xedatutako helburuarekin: Azkenik, Arartekoaren iritziz, etetearen iraupena kalkulatzeko erabilitako oinarria ez dago behar bezala justifikatuta araudian. Arartekoak honako hau aipatu du: [Diagnostiko-txostena](#), Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017koa; hain zuzen, 44. gomendioa, proposamenen artean, honako hau aipatzen duena: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen etenaldiaren iraupena argitzea, etenaldi-kausa bakoitzari dagokionez, eta etenaldi horrek iraupen zehatza duen kasuak eta prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldia hori eragin zuen kausa indargabetu arte mantentzen den kasuak bereiztea”*. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4696\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4696_1.pdf)

## 5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak iraungitzea

5.1. Alaba adingabe bat ardurapean duen guraso bakarreko bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi ditu Lanbidek, kexagileak genero-indarkeriaren biktimaren egiaztatzea eta bikotekide ohiak urruntze-agindua eduki arren. Lanbideren iritziz, kexagileak ez du bete legezkiokkeen eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak erabiltzeko betebeharra, ez baitu sistematikoki eta aldian-aldian salatu tratu txarrak ematen zizkion bikotekide ohiak ez duela mantenu-pentsioa ordaintzen. Espedientea aztertzean, genero indarkeriaren biktima den emakume bat bezalako pertsona oso ahulgarri bati arreta ematen dioten zerbitzu publiko ezberdinen arteko koordinaziorik eza egiaztatu da, eta horrek existitzen diren koordinazio-neurrien ebaluazio kritikoa egitea eskatzen du. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 17koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4732\\_1.pdf](http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4732_1.pdf)

5.2. Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek aurkeztutako kexak ikusita, Arartekoak gomendio bat prestatu du. Horretan, aztertu egin du Lanbidek eskubide ekonomikoak erabiltzeko betebeharraren eta betekizunaren inguruan egiten duen interpretazioa. Azterketa horren ondorioz, genero-indarkeriako egoeretan ordaintzen ez den mantenu-pentsioa betearazteko demandari lotutako arriskuaren eta efikaziaren arteko oreka aztertzea proposatu da; ildo berean, mantenu-pentsioa ez ordaintzea auzitegietan behin eta berriz salatzeko eskakizuna aztertzeko eskatu da. Gainera, proposatu da abian jar daitezkeen gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak, arretaren jarraitutasun-printzipioa betetz, genero-ikuspegia txertatuz eta, hala badagokio, ekintza positiboak ezarriz, zerbitzu publiko batek adostutako ekintzak ez daitezkeen eragingabeak izan beste batekin koordinatzeko zailtasunak direla eta. Azkenik, araudia aldatzeko beharra aipatu da, baliabide nahikorik ez duten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzen dituzten indarkeria matxistaren biktimak eraginkortasunez babesteko. Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4929\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4929_1.pdf)

5.3. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi ditu, 12 hilabeteko etenaldiaren ondorioz; eskubidea ez da berritu, Lanbidek uste baitu kexagileak ez duela egiaztatu nola ordaintzen dituen gutxieneko gastuak. Prestazioa etenda zegoen bitartean diru-sarrerarik ez zuenez, senideei laguntza eskatu behar izan zien eta kalez kaleko salmentatik diru-sarrera batzuk jaso zituen, orain egiaztatu ezin dituenak. Arartekoaren iritziz, araudiak ez du

ezartzen pertsonak diru-sarrerarik gabe nola irauten duten egiaztatzeko eskakizunik. Arartekoaren Ebazpena, abenduaren 12koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4912\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4912_1.pdf)

**5.4.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi ditu, polizia-txosten bat oinarri hartuta; eragindako pertsonari ez dio txostenaren kopia eman, eta horrek, Arartekoaren iritziz, pertsona horren defentsa-gabezia eragin du. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 28koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4728\\_1.pdf](http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4728_1.pdf)

**5.5.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi dio guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bati (alaba adingabe bat ardurapean duen emakume bati) lanaldi partzialeko, txandakako eta aldi baterako lan bati uko egiteagatik; gainera, berehala lanean hastea eskatzen zen, hain zuzen, jakin eta hurrengo egunean bertan, abuztu betean. Arartekoaren iritziz, bazegoen legezko kausa justifikatu bat lanari uko egiteko. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 15koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4747\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4747_1.pdf)

**5.6.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta bigarren aldiz etetea eta iraungitzea erabaki zuen, etxebizitzaren jabeak kexagileari alokatzen zion etxebizitzan beste pertsona bat erroldatu zuelako, prestazioen titularrari esan gabe eta jabea etxebizitza horretan bizi izan gabe; egoera horretan, ezinezkoa zen titularrak Lanbideri horren berri ematea. Betebeharra ez-betetze hori nekez egotz dakioke titularrari. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 1koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4780\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4780_1.pdf)

**5.7.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioetarako eskubidea iraungitzea erabaki zuen, prestazioak indarrean zeuden bi urteko aldian betebeharrak ez betetzeagatik bi aldiz eten zirelako. Arartekoak zalantzan jarri zuen prestazioetarako eskubidea iraungitzea ekarri zuten ez-betetze bietako bat erabakitzeke oinarri gisa erabilitako araudia egotea; izan ere, Lanbidek ez-betetzea gertatu zela esan zuen, titularrak baimendutakoa baino denbora gehiagoz EAEtik kanpo egon zelako; hori, jakinarazitako aldia hiru egunez luzatu beharra justifikatu zuen arren. Ebazpenean gogoeta batzuk egin dira, kexagilearen jokabidea prestazioetarako eskubidea eteteko arrazoitzat jotzeko behar besteko arau-oinarririk ez dagoela ondorioztatuta. Prestazioak iraungitzeak diru-sarrerak bermatzeko errenta urtebetez eskatu ezin izatea ekarri zuen, baina, praktikan, prestazioa 16 hilabetez ez zen ordaintzen.

Arartekoaren iritziz, segurtasun juridikoaren eta proportzionaltasunaren printzipioak urratu ziren. Arartekoak diagnostiko-txostenaren 16. gomendia gogorarazi zuen: *“Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea”*. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 26koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4702\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4702_1.pdf)

**5.8.** Lanbidek adingabe bat ardurapean duen guraso bakarreko bizikidetz-unitateari prestaziorako eskubidea iraungi zion, polizia-txosten bat oinarri hartuta, bizikidetz-unitatearen osaera ez zela egiaztatu ulertu zuelako. Ararteko honek zalantzan jarri du txostenaren forma eta edukia, gure ustez, ez baita frogabide nahikoa; gainera, txostena kexagileari helarazi ez zitzaionez, defentsarako eskubidea erabiltzea eragotzi zitzaion. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4774\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4774_1.pdf)

**5.9.** Lanbidek titularraren prestazioetarako eskubidea iraungitzea erabaki zuen, mantenu-pentsioa kobratzeko eskubideaz baliatu ez zuela esanez; gainera, 18.676 € itzultzeko eskatu zion, bidegabe jasotako prestaziotzat jotzen den zenbateko gisa.

Kexagileak guraso bakarreko familia-unitatea osatzen du, 8 urteko semearekin batera. Mantenu-pentsioa kobratu gabe hainbat aldiz geratu zenez, 2014. urtean, doako justiziaren zerbitzua eskatu zuen (eta eman zitzaion), epaia betearaztea eskatzeko. Ofiziozko abokatuak ez zuen arduraz jokatu, eta ondorioz, Abokatuen Elkargoak beste letradu bat izendatu zuen, ofiziozko txandan, eta hark amaitu zuen epaia betearazteko prozedura. Arartekoaren iritziz, interesdunak eskubide ekonomikoa baliatu zuen, nahiz eta, bere asmoekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, eskubide hori benetan aitortzeko eskakizuna denboran atzeratu zen. Arartekoak azpimarratzen du, besteak beste, garrantzitsua dela prestazioen zehapen-araubidea garatzea, oraindik ez baita egin, eta araudi osoa noiz aldatuko den zain gaude; hortaz, urte hauetan guztietan Lanbideri helarazitako gogoetek indarrean dira. Erakunde honek uste du jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen duen araudiak argi eta garbi finkatu beharko lukeela bidegabe jasotako zenbatekoen itzulketa eskatzeko aukera ematen duten kasuak. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4876\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4876_1.pdf)

**5.10.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea etetea eta iraungitzea erabaki zuen, titularrak enplegu-eskaera berritu ez zuela esanez, aurkeztutako justifikazioa kontuan hartu gabe, funtsean, Hobetuzek antolatutako

ikastaroa Lanbidek antolatutakoaren antzekoa zela jo zuelako. Gainera, ondorioz, prestazioa iraungi zenetik urtebete igaro arte, titularrak ezin izan zuen berriz eskaera aurkeztu.

Espediente horretan, Arartekoak adierazi du aplikatu beharreko araudia kontuan hartuta, prestazioa urtebetez etetea baino ezin da ulertu. Oro har, etenaldiaren iraupena zalantzazkoa da, eta behar baino handiagoa, iraungitzea erabakitzekeo dataren arabera delako; baina baliteke etenaldia lehenago hasi izana, etetea erabakitzekeo dataren arabera, kasu horretan gertatu den bezala. Arartekoak hainbat ebazpenetan eta Lanbiderekin izandako zenbait bileratan nabarmendu du ziurgabetasun-tarte hain handia izatea ez dela egokia. Hori dela eta, diagnostikotxostenak honako hau proposatu zuen: *"Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea"* (16. gomendioa). Gainera, erakunde honek adierazi du ez dagoela proportzio egokirik ez-betetzearen larritasunaren eta jasotako erantzunaren artean. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 2koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4710\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4710_1.pdf)

**5.11.** Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea erabaki zuen, jo baitzuen ez zegoela arrazoi justifikaturik enplegatzaileak lan-baldintzak aldatzeko egin zion proposamenari uko egiteko; izan ere, lanaldi partzialeko etxe-langilea izan beharrean etxean bertan bizitzen den etxe-langilea izatea proposatu zion enplegatzaileak, eta aldaketa hori ez zen bateragarria semea zaintzeko beharrarekin. Arartekoaren iritziz, ez litzateke bidezkoa diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea "automatikoki" iraungitzea, etxe-langilearen baja –Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian jasotakoa– ikusita, egiaztatzekeo beste jarduketarik burutu gabe, familia-etxeko zerbitzuan sortzen den lan-harreman bereziaren ezaugarriak kontuan hartuta. Gainera, enpleguari uko egitea semea familia ingurune egoki batean zaintzeko eta hezteko premiek justifikatzen zuten, eta lan-baldintza berriek ez zioten lagunduko bere garapen profesionala hobetzen. Arartekoaren iritziz, etxe barneko langile gisa lan egiteari uko egitea zentzuzkoa da, etxe-langileak (ez barnekoak) behar direnean; izan ere, kexagileak lehen izan duena bezalako lanpostu bat lortzeko aukera du, etxe barneko langilea izateak bere bizitza pertsonalean eta familian izango lukeen inpaktua saihestuz. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko urriaren 14koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4840\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4840_1.pdf)

## 6. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berritzeko eskaera ukatzea

6.1. Lanbidek etxebizitza baten azpierrentaria zen herritar bati prestazioak jasotzeko eskubidea berritzea ukatu zion, pertsona horren bizikidetzaren unitatearekin zerikusirik ez zuen errentariaren bikotekidea erroldatu izana jakinarazteko betebeharra ez betetzea arrazoitzat hartuta. Arartekoaren iritziz, ez zen betebeharra ez-betetzerik egon, eta besteak beste EKren 9.3 artikuluan ezarritako legezkotasun printzipioaren aurka dago hori. Izan ere, etxebizitzaren errentariaren bikotekidea erroldatu izana ez da kexagilearen bizikidetzaren unitatearen osaeran eragin dezakeen egitate bat, bikotekideak ez baitu zerikusirik bizikidetzaren unitate horrekin; halaber, ez du eraginik prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabilitako baliabideetan, eta, azkenik, ez da prestazioa emateko behar diren baldintzetako bat aldi baterako edo behin betiko galtzea ekar dezakeen egoera bat. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko apirilaren 12koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4823\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4823_1.pdf)

## 7. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioak erreklamatzeari

7.1. Lanbidek deskontu bat aplikatzen zuen emakume baten prestazioaren zenbatekoan; emakumeak ez zuen ezagutzen deskontuaren arrazoia, eta zegokion bulegoan ez zioten horri buruzko informaziorik eman. Lanbideren arabera, itzultze-prozeduraren sorburua den espedientearen zegoen jasota erakundearen aplikazioan, zor hori prestazio ekonomikoak Arabako Foru Aldundiak kudeatzen zituenean sortu zelako. Arartekoaren iritziz, interesdunak eskubidea du itzultze-prozeduraren izapidetze-egoera ezagutzeko eta bertan jasota dauden dokumentuen kopia jasotzeko, dokumentu horiek defentsa-eskubideari lotuta daudelako. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4712\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4712_1.pdf)

7.2. Lanbidek 12.047,08 euro itzultzeko errekerimendua egin zuen, jaso behar ez zirela jasotako prestazioak zirela eta, prestazioaren titularrak ez baitziren erantzun 2013. urtean bidalitako dokumentazio-errekerimenduari, baldintzak galdu zituen jasota ez zegoen arren. Preskripzioaren eraketa juridikoa aplikatu ondoren, azkenean zorra 6.914,16 eurora jaitsi zen. Arartekoak neurrigabeko deritzo prestazioak arrazoi horregatik erreklamatzeari, are gehiago, prestazio horiek aspaldikoak direnean. Aldi berean, prestazioak erreklamatzeko prozedura iraungita zegoela antzeman zenez, artxibatu beharko zen. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4882\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4882_1.pdf)



**7.3.** Lanbidek aspaldian sortutako zenbateko batzuk itzultzeko eskatu dio diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile bati, hartzaileak garai hartan bere senarra zen pertsonaren diru-sarrerak jakinarazi ez zituelako. Hartzaileak garai hartan genero-indarkeria jasaten zuela egiaztatu du, eta, beraz, zenbatekoaren erdia soilik itzularazteko eta zorraren beste erdia senar ohiari erreklamatzeko eskatu du. Lanbidek gaitzetsi du eskaera, araudiaren arabera zorra itzultzeko betebeharra titularrari dagokiola esanez. Arartekoak zorra erreklamatzeko prozedura iraungi egin dela gogorarazi dio Lanbideri, eta araudia aldatzea proposatu du, egoera horiek saiheste aldera. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 10ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4911\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4911_1.pdf)

**7.4.** Lanbidek 2012ko irailetik 2013ko urtarrilera bitarteko aldiari dagokion diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako prestazioak itzularaztea erabaki zuen, hain zuzen, 1.748,33 euro. "Fede ona" egiaztatuz gero berraztertze ahalmenaren mugak non dauden aztertu zuen Arartekoak, prestazioaren titularrak jakinarazi baitzituen prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartutako baliabideetan eragina izan zezaketen egitateak. Jarduketaren azterketan, [Čakarević Kroaziaren aurka](#) Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bat aipatu zen, hain zuzen, espedienteak berraztertze ahalmenaren mugak aztertzen dituen. Jurisprudentiako jarrera hori dagoeneko jaso da [epaia](#) Bartzelonako Lan Arloko 26. zenbakiko Epaitegiaren 2018ko uztailaren 5eko epaian; Giza Eskubideen Europako Auzitegiak babesten duen tesia hartzen du epai horrek. Gainera, zorra erreklamatzeko egintza preskribatzea aztertu zen ebazpenean. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko martxoaren 15ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4697\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4697_1.pdf)

**7.5.** Lanbidek 10.175,43 euro itzultzeko eskatu zuen, eragindako pertsonak prestazioen hartzailea izan aurretik garaje bat saldu zuelako. Arartekoaren iritziz, zorra ez zen bidezkoa, garajearen salmenta prestazioak jaso aurretik burutu zelako. Gainera, prestazioen ondorengo berrikuspena eta erreklamazioa ez ziren behar bezala arrazoitu, eta, epe luzeegia igaro zenez, dagoeneko preskribatuta zeuden. Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, jardunbidea administrazio ona izateko eskubidearen aurkakoa zen. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 41. artikulua hartu zuen iritziaren oinarritzat (Karta Europar Batasunaren Tratatu aldutzen duen Lisboako Ituna sinatu zenetik Europar Batasunaren zuzenbidearen parte da), baita Auzitegi Gorenak 2015eko azaroaren 20an emandako epaian ere (errekurtso-zk.: 1203/2014). Arartekoaren Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak onartu du ebazpena.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4683\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4683_1.pdf)



**7.6.** Lanbidek 2.877,70 euro itzultzeko eskatu zion prestazioaren titular bati, batetik, bizikidetz-unitateko kide batek lan-harreman bat hasi izana ezarritako epean jakinarazi ez zuelako (egun batekoa zen eta kide horrek ez zuen ordainsaririk jaso), eta bestetik, alokairu-agiriak aurkeztu ez zituelako. Era berean, prestazioaren ordainketak hiru hilabetez eten zituen. Arartekoaren iritziz, ez zen betebeharrak ez-betetzerik egon, eta titularrak ez zituen baldintzak galdu; beraz, ez da bidezkoa zenbateko hain handia itzultzeko eskatzea. Ebazpenean jasota utzi da Lanbidek hartutako jurisprudentziazko jarrera. Horren bidez, prestazioak erreklamatzeko prozedurak prestazio horiek aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozedurari jarraipena ematen dio; horrenbestez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko edo iraungitzeko ebazpen irmo bat egotea prestazioak itzultzeko betebeharra erabakitze nahikoa titulu da. Erakunde honek Lanbideri jakinarazi dio doktrina judizial hori aplikatu nahi izanez gero Lanbideren administrazio-prozeduretan doikuntzak egin behar direla, berme-emaileak izan daitezen, batez ere, gizarte-bazterketaren arriskuan edo egoeran dauden pertsonen oinarriko beharrei erantzuteko eskubidea onartzen dutela kontuan hartuta. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 6koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4730\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4730_1.pdf)

**7.7.** Lanbidek, etxebizitzarako prestazio osagarria dela eta, 6.774,19 euro itzultzeko betebeharra adierazi zuen, titularra ez baitzuen izena eman etxebizitza publikoaren eskatzaileen erregistroan (Etxebide) berrikuspenak aintzat hartutako aldirian, hau da, 2011ko azarotik 2013ko abendura bitartean. Arartekoaren iritziz, 2014ko urtarrilaren 28ko ebazpenak –prestazioa ez berritzea erabakitzeak– ez zuen zenbatekoa itzultzeko beharra aipatu. Izan ere, Lanbideko zuzendari nagusiak askoz ere beranduago –2016ko azaroaren 29an– jakinarazi zion kexagileari, lehenengo aldiz, lehenago jasotako etxebizitzarako prestazio osagarria itzuli beharko zuela eta erreklamatzeko zitzaien zenbatekoa; hortaz, erreklamatzeko den zenbatekoaren zati bat preskribatuta dago. Gainera, 2012ko uztailaren 6tik aurrera etxebizitza babestuen eskatzaileen zerrendan izena emanda egon dela egiaztatu du kexagileak. Kexagilea etxebizitza babestuen eskatzaileen zerrendan izena emanda dagoela ala ez dagoela ofizioz egiaztatze aukera izan zuen Lanbidek. Izan ere, berrikusteko prozedura hasi zen garaian, etxebizitzaren arloko eskumenak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak zituen. Hori guztia dela eta, Arartekoaren iritziz, Lanbidek ez zeukan jasotako prestazioak erreklamatzeko behar zuen oinarri juridikorik. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko irailaren 25ekoa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4792\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4792_1.pdf)

## OFIZIOZKO JARDUERAK

1. Arartekoak ofiziozko jarduera bat amaitu du, honako gai honi buruzkoa: diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortzeko espedientean, langile autonomoei **gutxieneko etekin faltsua egoztea**. Erakunde honek izapidetu dituen hainbat kexatan antzeman duenez, Lanbidek jardueraren fikziozko gutxieneko etekin bat egozten die langile autonomo guztiei, haiek aurretiaz egindako zerga-aitorpena izan edo ez. Ondorioz, legokiekeen lan-sarreraren prestazio osagarriaren zenbatekoa murriztu, baita ere eten egiten du, eta, gainera, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzen die. Arazo horiei buruzko kexak izapidetzean antzemandako akatsak eragin dituzten irizpideak berrikusi eta argituko dituela erantzun du Lanbidek. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko ekainaren 14koa.

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4738\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4738_1.pdf)

2. Erakunde honek **genero-indarkeriaren egoera egiaztatzeko modua** dela eta ofizioz hasitako jarduera bat amaitu du. Arartekoaren iritziz, gaur egungo arau-esparruak etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima izatea gizarte-txosten baten bidez egiaztatzea ahalbidetzen du. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko maiatzaren 13koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez du ebazpena onartu.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4733\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4733_1.pdf)

3. Arartekoak amaitu du bere ofiziozko jarduera; horren bidez, Lanbidek emandako 1/2015 Zirkularra –bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak zehazteari buruzkoa– aldatzeko proposamena helarazi dio erakunde horri. Zirkularra, aurreko egoerarekin konparatuta, aurrerapen garrantzitsua izan arren, diru-sarrerak bermatzeko errenta / etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbateko handiak itzuli behar zituzten titularren ahulgarritasun-egoerei erantzun zielako. Hala ere, Arartekoaren iritziz, Zirkularreko aurreikuspenak hobetu behar dira, izan duen ibilbidea eta aplikatzean eragin dituen arazoak kontuan hartuta. Arartekoaren aburuz, itzuli beharreko zorra zatikatzearen ondoriozko zenbatekoa bizikidetzaren unitatearen bizitzeko gutxienekoa bermatzeko helburua ziurtatuko duten elementu objektiboek soilik zehaztu behar dute; izan ere, hala egin ezean, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta gizarteratzeko prestazioaren izaera eta legearen helburua indargabetzen ariko litzateke. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 26koa; **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzunaren zain dago.**

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4917\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4917_1.pdf)

4. Arartekoak amaitu egin du prestazioen eskatzaileek edo titularrek aurkeztutako hainbat kexatan antzemandako arazoen inguruko ofiziozko jarduera; hain zuzen, herritar horiek biziarteko gozamenarekin kargatutako ondasun higiezin baten jabetza soila –osoa edo partziala– jarauntsi dute, eta ondare-mugari buruzko aurreikuspenak aplikatu zaizkie; ondorioz, ez dute betetzen baliabide nahikorik ez izateari buruzko baldintza. Hori guztia, praktikan, jarauntsitako ondasun higiezinaren biziarteko gozamina amaitzen ez den artean, hura erabili ezin den arren; hortaz, ezin da esan bere ahalmen ekonomikoa areagotu denik. Lanbideri helarazitako gogoetei erantzunez, erakunde horren zuzendari nagusiak jakinarazi dio Arartekoari araudi-garapen berrian berrikusten ari direla bai etekinen mugak, bai horiek zenbatzeko modua, batez ere ondasun higiezinak jaraunspenean hartu dituztenen kasuetan. Arartekoaren Ebazpena, 2019ko abenduaren 5koa.

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4924\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4924_1.pdf)

5. Arartekoak amaitu egin du diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateari utzi dioten pertsonen egiten zaizkien jakinarazpenen inguruko ofiziozko jarduera. Izan ere, jakinarazpen horien bidez, prestazioak itzularazteko prozedurako izapideak jakinarazten zaizkie. Arartekoak honako gai honi buruzko kexak jaso ditu herritar batzuegandik: Lanbideek harreman juridiko-administratiboa amaitu zenetik hainbat hilabete eta are urte batzuk ere igarota itzularazteko prozedura ireki dizkie, herritar horiek helbide-aldaketa jakinarazteko betebeharra zegoenik jakin ez zuten arren. Izan ere, zorra omen dutela jakin dute, betearazpen-bidera jo ondoren sail eskudunaren jakinarazpena jaso dutenean. Lanbideek urteetan zehar aplikatzen zuen jardunbidea hobetu egin da; izan ere, informazio gehiago ematen dute, adibidez, prestazio-espeditenteak berrikusteko aukerari buruz. Hala ere, Arartekoak aztertutako espeditenteetan hobetzeko tarte handia zegoen oraindik ere. Eusko Jaurlaritzak deuseztatu egin zituen kasu horietan betearazpen-bidean zeuden erreklamazioak. Arartekoaren Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 10koa.

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4916\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4916_1.pdf)

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrila

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*